

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA.....	1
2. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK.....	4
3. GAUZATUTAKO PROZESUAREN AZALPENA.....	4
4. HEZKUNTZA - KOMUNITATE AREN ELAKARBIZITZARI ETA ONGIEZATEARI BURUZKO IKATETXEAREN DEFINIZIOA.....	4
5. ELKARBIZITZA PLANA.....	5
A) GATAZKEN ANALISIA.....	5
B) ESKOLAKO ESPAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK.....	27
1. Sarrerak eta irteerak.....	27
2. Jantokia.....	27
3. Gela.....	27
4. Pasabideak.....	27
5. Komunak.....	28
6. Informatika gela.....	28
7. Sukalde gela.....	28
8. Margolaritza.....	28
9. Laborategia.....	28
10. Ingelerako gela.....	28
11. Musika gela.....	28
12. Liburutegia.....	29
13. Gimnasioa/Psikomotrizitate gela.....	29
14. Jolastokia.....	29
15. Garraioa.....	29
C) IKASTETXEKO ARAUAK , ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	30
1. Irakasleak.....	30
1.1. Arauak.....	30
1.2. Eskubideak.....	30
1.3. Betebeharrak.....	31
1.4. Zaintzak/ordezkapenak.....	32
2. Ikasleak.....	32
2.1 Eskubideak.....	32
2.2 Betebeharrak.....	35

3. Irakasle ez diren langileak.....	36
3.1 Hezitzaileak.....	36
3.1.1. Eskubideak.....	36
3.1.2. Betebeharrak.....	37
3.2. Atezaina.....	37
3.1.1. Eskubideak.....	37
3.1.2. Betebeharrak.....	38
3.3. Jantokiko langileak.....	38
3.1.1. Eskubideak.....	38
3.1.2. Betebeharrak.....	39
4. Gurasoak.....	39
4.1. Eskubideak.....	39
4.2. Betebeharrak.....	49
6. BIBLIOGRAFIA.....	40
7. ERANSKINAK.....	41

1. HITZAURREA

Lege askotan adierazi bezala, egoki eta beharrezkoa da ikastetxeek elkarbিতza hobetzeko planak garatzea. Aipatu berri dugun hori, hain zuzen, ondoko lege hauetan jaso da.

- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- 2/2006 Lege Organikoa, hezkuntzari buruzkoa.
- 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma Sortu eta Ezartzen duena.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzkoa.
- 2010-2011 ikasturtearen hasierako Ebazpena, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzari buruzkoa. Ebazpen horretan ezarri da "Eskola Txikiek" izan ezik, gainerako beste ikastetxe guztiek bi urteko epea izango dutela elkarbিতza Plana egin eta Elkarbিতzaren Behatokia izateko.

Agiri honen helburu nagusiak dira:

- a) Agindu zaien eginkizuna antolatzen laguntzea Elkarbিতza Plana egiten ari diren ikastetxeei.
- b) Elkarbিতza Planen edukia eta egitura zehaztea, eta horiek idazteko tresna eskaintzea.

a) Elkarbিতza Planen xedea eta edukia

Agiri honetan jasotako Elkarbিতza Planaren eredia ez da berria. Eredua hori egiteko, 2006-2007 ikasturtetik 2009-2010 ikasturtera bitarte "Elkarbিতzaren Behatokia sortzeko eta Elkarbিতzaren Urteko Plana egiteko" proiektuaren bidez ikasitakoa hartu dugu oinarri.

Ereduko Elkarbিতza Plana agiri estrategikoa da. Hartan jaso dira, besteak beste, ikastetxean elkarbিতza positiboa garatzeko hezkuntza-komunitatearen asmoa, eta bizikidetzara egoki hori lortzeko erabili behar diren estrategiak.

Lau urterako hobekuntza-plan hori egiteko, lehenik, ikastetxeko elkarbিতza diagnostikoa egin da. Ondoren, diagnostiko horretan hautemandako ahulguneak lantzeko asmoz, hainbat ekintza diseinatu dira. Urteko Planaren bidez, bidenabar, zer hobekuntza-jarduera inplementatu erabakiko da ikasturtero. Urteko Memorian, ordea, inplementatutako jarduera horiek ebaluatuko dira.

Ondoko arrazoi hauek bultzatu gaituzte urte anitzeko hobekuntza-plana proposatzera:

- Ikastetxeak, zenbaitetan, estresatuta ibiltzen dira sistemako hainbeste izapide zehatz egin behar izateagatik. Beraz, lau urterako perspektibarekin lan eginez gero, ikastetxeen lan-erritmoa pausa daiteke.
- Epe ertainerako planifikazio horri esker, gainera, laneko ildo koherentea mantentzeko daiteke hainbat ikasturtetan, hezkuntza-komunitateak baliozkotzat jo dituen helburuei eusteko aukera ematen baitu lau urterako planifikazioak.
- Azkenik, bizpahiru urte behar dira ikastetxe batek edozein berrikuntza-ekintza –elkarbizitza hobetzeko ekintzak barne– onartu eta bere dinamikan sar dezan.

Elkarbizitza-planetan hiru alderdi hauek zaindu behar dira:

- Eragile guztiek elkarbizitza esanahiari buruzko gogoetan parte hartzea.
- Ikastetxeko elkarbizitza diagnostikatzea, indarguneak eta ahulguneak hautemanez.
- Hautemandako ahulguneak hobetzeko ekintzak diseinatzea.

b) Elkarbizitzari eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzeari buruzko planak

Hezkuntza-komunitate osoak (irakasleek, ikasleek, familiek, eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileek) hartu behar du parte Elkarbizitza Plana egiteko prozesuan. Elkarbizitza positiboaren esanahiari buruzko gogoeta egin behar du hezkuntza-komunitateak. Horrez gain, ikastetxeko elkarbizitza aztertu behar du, indarguneak eta ahulguneak hautemanez, helburuak ezarri behar ditu, eta horiek betetzeko erantzukizuna bere gain hartu.

Elkarbizitzaren mesedean, kontzeptu-esparru komunak izan behar dituzte eragileek, eta komunean dituzten alderdien inguruan adostasuna lortu. Izan ere, eragileek parte hartu gabe sortutako Elkarbizitza Plana teknikoki bikaina izan daiteke, baina ez da tresna erabilgarria izango ikastetxean elkarbizitza hobetzeko.

Gutxika-gutxika, hezkuntza-komunitate osoak parte hartzeko bideak zabaltzen ari dira ikastetxean. Hala ere, gure hezkuntza-sistemak ez du oraindik lortu hezkuntza-komunitateak –bereziki, ikasleen familiek– parte hartzea. Elkarbizitza Planak egiteko orduan, sektore guztiek –familiek, bereziki– ahalik eta gehien parte har dezatela lortu behar dugu. Kontuan izan behar dugu, bestetik, parte-hartzea balio absolutua (parte-hartzea dago ala ez dago) ez dela, zenbait maila izan baititzake (informazioa emate hutsetik hasi, ekimenak diseinatu eta martxan arte). Elkarbizitza sustatzeko irizpidea oinarri izanik egin beharra dago

Plana eta, hortik aurrera, egundaino lortutako mailak pixka bat hobetzen saiatu behar dugu.

Gogoeta-prozesu konplexu eta nekeza egin behar da elkarbizitza-plan ona sortzeko. Zorionez, mintzagai dugun prozesua erraztuko dute "*Elkarbizitza Urteko Plana egin eta Elkarbizitzaren Behatokia sortzea*" proiektuan –aurreko ikasturteetan garatutakoan– landutako materialek eta haren bidez ikasitakoak. Materialak, orientazio metodologikoak, programazioak, eta praktika onen proiektuak izango dituzte eskura ikastetxeek Berritzegunetan. Gauzatu beharreko lana erraztu eta hura egiten lagunduko diete aipatu berri ditugun baliabideek ikastetxeei.

Dokumentu honetan ez gara "*Elkarbizitzaren Behatokiari*" buruz ariko. Hala ere, uneoro gogoan izan behar dugu nahitaez eratu beharra dagoela behatokia (halaxe jaso baitzen 2010-2011 ikasturtearen hasierako Ebazpenean), eta organo horrek, besteak beste, Elkarbizitza Plana martxan jarri behar duela. Beraz, 2012-2013 ikasturtearen hasieran *elkarbizitza behatokia* sortzeko asmoa dugu.

2. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

Larrabetzuko estola Txorierriko Herri txiki batean kokatuta dago. Eskolako ISEK-aren arabera maila erdi- altua da. Herria azken urteetan hazten joan da, beraz eskola ere handitu egin da eta aniztasuna zabalagoa da.

Ikastetxea lerro batekoa da, nahiz eta kurtso batzuetan bi maila izan. 2011-12 ikasturtean irakasleriaren %85 behin betikoa izan da, baina hainbat ikasturteetan aldaketa ugari izan dira. Hala eta guztiz ere, ikasturtetan zehar eskolako proiektua mantendu egin da. Eta egon diren irakasle taldeak eta zuzendaritzak jarraitu diote egindako ildoari.

Eskolan betidanik eragile guztien partaidetza bultzatu da eta oso onuragarria izan da eskola aurrera eramateko. Irakasleak, ikasleak eta familiak eskolako bizitzan parte hartzen dute, bakoitza dagokion erakundean. Irakasleek zikloa, klaustroa eta OMR-a dituzte. Ikasleek gela-tutoretza dute; gurasoek IGE eta OMR-a dituzte.

Guraso Elkartearen parte hartzea oso eraginkorra da. Bere gain jantokiko ardura hartu du eta talde zuzendaritzarekin batera hainbat ekintza bultzatu dira. Zentroa arautzen duen oinarrizko agiriak AIA, Hezkuntza Proiektua eta Urteko Plana dira.

3. GAUZATUTAKO PROZESUAREN AZALPENA.

Aholkulariak 2010-11 eta 2011-12 ikasturteetan Leioako Berritzeguneko Elkarbizitza mintegian parte hartu du. Irakaslearen atala egiteko Berritzeguneko saio berezi batzuk izan ditugu eskolan.

Eskolan Aholkulariak Elkarbizitza Batzordea eratu egin du (Haur Hezkuntzako irakasle bat (Ikasketa burua dena); Lehen hezkuntzako bat eta P.T. irakaslea.

Aholkulariak eta Batzordeak prozesua bideratu dute:

- Irakasleak-ikasleak-monitoreak HAUSNARKETA eta DIAGNOSTIKOA.
- Goiko estamentu bakoitzaren HOBETZEKO EKINTZAK osatu egin dira.
- Familiekin HAUSNARKETA eta DIAGNOSTIKOA..

4. HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN ELKARBIZITZARI ETA ONGIZATEARI BURUZKO IKASTETXEAREN DEFINIZIOA

Elkarbizitza eskola klima da, non pertsonen arteko komunikazioa, konfiantza, tolerantzia eta errespetua funtsezko aspektuak diren; horretarako, eta harreman positiboak garatu nahian, oinarritzat hartzen ditugu guztiok behar bezala baloratuak izatea, eskolak proiektu komun bat izatea eta estamentu guztietako kideen parte hartzea bultzatzea.

5. ELKARBIZITZA PLANA:

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: ESKOLAKO SARRERAK ETA IRTEERAK

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN DUTEN	NEURRI DIRENAK EDO EZ)	PREBENTIBOAK (EGITEN	ESKU-HARTZEA
<p>1. Borrokak, bultzakadak, korrika sartu eta irten, mehatxuak, oihuak, ingurunearen errespetu falta (landareak, zuhaitzak, altzariak...), baloiarekin jolastu...</p> <p>2. Gurasoak irakasle edo jantokiko arduradunarekin hitz-egiteko edozein momentuan eskolara sartzea</p>		<p>-Eskolara sartu eta irteteko arauak.</p> <p>-Tutoreekin sartu eta irten modu egokian.</p> <p>-Haur Hezkuntzako ikasleak atzeko atetik sartzen dira.</p> <p>-Sarrera eta irteera orduetan irakasleak egotea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehen Hezkuntzako gurasoak ez dira sarreretan eskolara sartu behar. -Goizean haur Hezkuntzako gurasoak halleraino lagundu ditzakete umeak. -Arratsaldean Haur Hezkuntzako gurasoak kalean itxarongo dute. -Ikaslea eskolako ohiko ordutegitik kanpo heltzean, gurasoek eskolako nagusi baten ardurapean utzi beharko dute beheko solairuan. 		<p>Atentzioa deitu eta berriro bueltatu beharko dira eta era egokian etorri. Jarrera ezezkor baten aurrean tutorearekin hitz-egin.</p> <p>Gurasoei beste momentu baterako hitz-ordua eman.</p>

A.GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: ESKOLAKO SARRERAK ETA IRTEERAK

GATAZKA ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>3. Irakaslea berandu heltzea.</p> <p>4. Autobus eta taxira irteerak.</p>	<p>-Beste irakasle batek taldea hartuko du eta ikasketa buruari esan.</p> <p>-Tutorea ordua baino apur bat lehenago egon beharko da zentroan.</p> <p>-Autobusean edo taxian joaten den ume bat gurasoek batuko badute idatziz tutoreari, zuzendariari edo garraioko arduradunari iragarri.</p>	<p>-Askotan errepikatzen bada zuzendaritza taldeari abisua eman.</p> <p>-Autobuseko zainzaileak edo taxistak ez du umerik eskolan utziko idatzizko abisurik ez badago.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: ESKOLAKO SARRERAK ETA IRTEERAK

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN	DUTEN	NEURRI DIRENAK EDO EZ)	PREBENTIBOAK	(EGITEN	ESKU-HARTZEA
5. Gurasoen atzerapenak sarrera eta irteeretan.			<ul style="list-style-type: none"> - Irteeretan tutoreak umeak zainduko ditu gurasoak etorri arte. - Kurtso hasieran gurasoei orduan etortzea eskatuko zaie ohar baten bidez. 			-Honelakoak errepikatzen badira zuzendaritzatik abisu bat helaraziko zaio.

A.GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IKASLEEN ARTEKO GATAZKAK JOLASORDUAN

GATAZKA ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>1.Jolasetan haserreak (futbolean batez ere).</p> <p>2. Kontaktua duten jolasetan sortzen den gehiegizko agresibitatea.</p> <p>3.Bromak eta burlak ume bati.</p> <p>4. Ikusle pasiboak.</p> <p>5.Nagusiak txikiei egindako gehiegikeriak.</p> <p>6. Berdinen arteko gehiegikeriak.</p> <p>7.Biraoak eta hitz itsusiak.</p> <p>8.Txukuntasuna: zakarrontzien erabilera etab.</p>	<p>-Patioko zaintza aktiboa.</p> <p>-Beste jolas batzuk proposatu.</p> <p>-Tutoretzan patioko arauak landu.</p> <p>-Jolas mota hauen arauak tutoretzan landu.</p> <p>-Tutoretzan elkartasuna, solidaritatea, hitz egiteko erak, aniztasuna... landu.</p> <p>-Bestelako patioko jolasak landu. (“Euskaraz jolasten ” kanpaina).</p>	<p>-Momentuan ahoz jarrera ezezkorra zuzendu. Egoera larria bada tutoreari esan.</p> <p>-Zigorrak ipini: jolas-ordurik gabe geratu, txangorik ez... eta hausnarketa.</p> <p>-Egokia ikusten bada ingurua zaintzeko ekintzak egin: patioko paperak batu, txikiei lagundu...</p> <p>-Berehalako zigorra jarri eta patioa zaintzen dagoen irakasleak jarriko du. Beharrezkoa ikustekotan tutoreari esan.</p> <p>- Beharrezkoa ikustekotan familiari esan.</p> <p>-Sentiarazteko kanpainak antolatu eskola mailan. Adib ipuinen bitartez.</p>

A.GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: JANTOKIAN

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN DUTEN	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>1.Jantokiko langileei errespetua faltatzea.</p> <p>2.Ikasleen arteko errespetu faltak.</p> <p>3. Janaria botatzea, janariarekin jolastea...</p>		<p>-Jantokiko arauak tutoretzan errepasatu kurtso hasieran eta beharrezkoa ikusten denean.</p> <p>-Tutoretzan errespetua, elkartasuna... moduko baloreak landu.</p> <p>-Ikasleekin eskola eta ingurua zaintzeko ohiturak landu.</p> <p>- Kurtso hasierako batzarrean gurasoei arautegia azaldu. (etxera txosten bat bidaltzen da)</p>	<p>- Jantokiko arautegia bete.</p> <p>-Momentuan ahoz jarrera ezezkorra zuzendu. Egoera larria bada tutoreari esan.</p> <p>-Zigorrak ipini: jolas-ordurik gabe geratu, txangorik ez... eta hausnarketa.</p> <p>-Egokia ikusten bada ingurua zaintzeko ekintzak egin: patioko paperak batu, txikiei lagundu...</p> <p>-Berehalako zigorra jarri eta patioa zaintzen dagoen irakasleak jarriko du. Beharrezkoa ikustekotan tutoreari esan.</p> <p>- Beharrezkoa ikustekotan tutoreak familiari esango dio.</p> <p>-Sentiarazteko kanpainak antolatu eskola mailan. Adib ipuinen bitartez.</p>

A. GATAZEN ANALISIA

GATAZKA: IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK GELA BARRUAN

GATAZKA SORTZEN DUTEN ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>-Ikasleen arteko errespetu faltak: irainak, mesprezuak, besteak baino gehiago sentitzea, lehiakortasun gehiegikeriak, hitz-egiteko txanda ez errespetatzea.</p> <p>-Ikasle baten materiala desagertzea, lapurreta.</p> <p>-Lan taldeak ez onartzea, gelakideren bat ez onartzeagatik.</p> <p>-Ikasleen arteko borroka fisikoak.</p> <p>-Ikasleen arteko ahozko gatazkak.</p> <p>-Ikasle bat bakarrik uztea.</p>	<p>TUTORETZA:</p> <p>-Denon artean arautegia sortu.</p> <p>-Ikasleen betebeharrak eta eskubideak argitu.</p> <p>-Besteen lekuan jartzea (enpatia).</p> <p>-Norberaren akatsak onartu eta bideratu.</p>	<p>- Momentuan ahoz jarrera ezezkorra zuzendu parte hartu duten ikasleei.</p> <p>- Gelan gaia tratatu eta bakarkako jarraipena egin</p> <p>-Zigorrak ipini: jolas-ordurik gabe geratu, txangorik ez... eta hausnarketa.</p> <p>-Egokia ikusten bada ingurua zaintzeko ekintzak egin: patioko paperak batu, txikiei lagundu...</p> <p>- Beharrezkoa ikustekotan tutoreak familiari esango dio.</p> <p>-Sentiarazteko kanpainak antolatu eskola mailan. Adib ipuinen bitartez.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: BULLYING

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN	DUTEN	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>-Harremanetan besteak bestek beldurtu norberaren menpean egoteko.</p> <p>-Agintzeko joera duten ikasleak mehatxua ere erabiliz.</p> <p>-Autoestima baxua, errekurtsio gutxi eta lagunik gabeko umeak.</p> <p>- Ikusle pasiboak.</p>			<p>- Berdintasuna eta balore demokratikoetan oinarrituz harremanak bultzatu.</p> <p>-Ikasleen betebeharrak eta eskubideak landu.</p> <p>- Ikasleen artean lider onak bilatu.</p> <p>-Tutoretzan bullyingeko egoerak aztertzea eta isilik ez geratzea landu.</p>	<p>-Eusko Jaurlaritzak emandako Bullyingeko protokoloa.</p> <p>-Sentiarazteko kanpainak antolatu eskola mailan. Adib ipuinen bitartez.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLEEN ARTEAN

GATAZKA SORTZEN DUTEN ARRAZOTIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>1. Gatazka bakar baten aurrean neurri ezberdinak hartzea eta ikuspuntu ezberdinak izatea.</p> <p>2. Koordinazio eza.</p> <p>3. Besteen ideiak eta iritziak ez onartu eta errespetatzea.</p> <p>4. Lankidetzaren eza: taldeko lanetan huts egite, materiala eta eskolako espazioen erabilera desegokia, ...</p> <p>5. Puntualtasuna. Patio zaintzetan, klase aldaketetan,...</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ziklo edo etapetan hartutako erabakiak errespetatu. - Aurretik akordurik egon ezean norberaren lan egiteko erak errespetatu. - Kurtso hasieran eta ordezkari bat datorren bakoitzean, azalpen zehatzak eman: eskusabaiak, guraso bilerak, laguntzak, espazioen erabilera,... - Tutoretza plana banandu bakoitzaren funtzioekin. - Iritziak eman besteenak errespetatzen. 	<p>-Bitartekari bat bilatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Zuzendaritza taldea. -Ziklo koordinatzailea. -Beste taldekide bat. <p>Beharrezkoa ikustekotan arazoa zuzendaritzan kontatu.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: JANTOKIKO LANGILEEN ARTEAN

GATAZKA SORTZEN DUTEN ARRAZOTIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>1. Gatazka bakar baten aurrean neurri ezberdinak hartzea eta ikuspuntu ezberdinak izatea.</p> <p>2. Koordinazio eza.</p> <p>3. Besteen ideiak eta iritziak ez onartu eta errespetatzea.</p> <p>4. Lankidetzaren eza: taldeko lanetan huts egitea,...</p> <p>5. Puntualtasuna. Patio zaintzetan, txanda aldaketetan,...</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hartutako erabakiak errespetatu. - Aurretik akordurik egon ezean norberaren lan egiteko erak errespetatu. - Kurtso hasieran azalpen zehatzak eman: arauak, espazioen erabilerak... - Bakoitzaren funtzioa jakin. - Iritziak eman besteenak errespetatzen. 	<p>-Bitartekari bat bilatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Jantoki arduraduna. -Zuzendaritza taldea. -Beste taldekide bat. <p>Beharrezkoa ikustekotan arazoa zuzendaritzan kontatu.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE ETA IKASLEEN ARTEAN

GATAZKA ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>1. Errespetu falta, kasurik ez egitea, irakaslearen azalpenak ebakitzea.</p> <p>2. Agendan gurasoen sinadura ordezkatzeta.</p> <p>3. Ondorioak ekar ditzaketen gezurrak.</p> <p>4. Irainak, mehatxuak,</p>	<p>Guztiontzat:</p> <p>-Kurtso hasierako bileretan azpimarratu umeen aurrean irakasleen autoritatea ez kentzea eta ikastetxeko erabakiak errespetatzea. Dударik egonez gero zuzenean irakaslearekin hitz-egin.</p> <p>-Ikasleekin giro ona mantendu.</p> <p>-Errespetua landu.</p> <p>-Gela eta ikastetxeko arauak egin eta berrikusi.</p>	<p>- Falta larri baten aurrean edo sarritan gertatutako egoera izanez gero tutoreari esan. Konpontzen ez bada , protokoloa jarraitu:</p> <p>-Gurasoak,zuzendaritza taldea, elkarbizitza batzordea eta eskola kontseilua.</p> <p>-Eraso baten aurrean, lekuko bat eta bitartekari bat bilatu.</p> <p>-Zigorak ipini: jolas-ordurik gabe geratu, txangorik ez... eta hausnarketa.</p> <p>-Ikasleak gertatutakoa idatziko du eta barkamena eskatuko du.</p> <p>-Idatzitakoa etxera bidali eta gurasoek sinatu beharko dute.</p> <p>-Sentiarazteko kanpainak antolatu eskola mailan. Adib ipuinen bitartez.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE ETA IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN ARTEAN

GATAZKA SORTZEN DUTEN ARRAZOTIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>-Funtzioak eta betebeharrak ondo zehaztuta ez izatea. (hezitzaileak, atezaina, jantokiko pertsonala, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Arauak errespetatzearen garrantzia gogorarazi lehenengo klaustroan. - Sektore bakoitzak bere arauak eta bere erantzukizunak betetzea besteen gauzetan sartu gabe. - Arazo baten aurrean zuzenean interesatuarekin hitz-egin. 	<p>-Zuzendaritza taldea bitartekaria izango da.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE ETA GURASOEN ARTEAN

GATAZKA ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> - Gurasoak metodologian, zigorrekin, ekintzekin etab. Ados ez daudenean. - Beraien seme-alaben emaitza akademikoak onartzen ez dituztenean. - Irakasleen iritziak ez onartzea: jarrera, gaitasunak... - Irakasleei autoritatea kentzea gurasoen partetik. - Irakaslearekin adostutako bileretara ez agertzea. - Aurretik abisatu barik elkarrizketa nahi izatea. - Guraso eta irakasleen artean enpatiarik ez izatea. 	<p>Bileren hitzorduak idatziz eman eta idatziz konfirmatu.</p> <p>Kurtso hasierako batzarretan funtzionamendu azalpenak eman: metodologian, ekintzak, hitzorduak, nola jarri harremanetan irakaslearekin...</p> <p>Irakasle espezifikoek tutoreei emango diete ikasleen berri hauek gurasoei esateko.</p> <p>Irakasle espezifikoekin harremanetan jartzeko tutoreen bidez egingo da.</p> <p>Ikasle batek jarrera ezezkorra duenean gurasoei deitu.</p> <p>Ikasle bati edozelako laguntza berezia, froga, edo behaketa egin aurretik gurasoei informatu.</p>	<p>-Tutore eta gurasoen arteko gatazka oso larria bada zuzendaritza taldeak eta elkarbizitza batzordetik bideratuko da.</p> <p>-Beharrezkoa ikusten denean aholkulariak parte hartuko du.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE ETA GURASOEN ARTEAN

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN DUTEN	NEURRI DIRENAK EDO EZ)	PREBENTIBOAK (EGITEN)	ESKU-HARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> - Giza baliabide eza ikasle baten beharrianen aurrean. - Ikasleen absentismoa. - Komunikazio falta guraso eta irakasleen artean. - Elkarrizketetan istiluak daudenean. - Ikasleen jarrera desegokiak daudenean. - Gurasoak irakasleen hezkuntza erabakietan ados ez daudenean. - Irakasleak edo gurasoak bere betebeharrak betetzen ez dituztenean. 	<ul style="list-style-type: none"> istiluak desegokiak 	<p>Gatazka bat egon daitekeela dakigunean edo elkar-ulertze arazoak egon daitezkeenean, tutorea beste irakasle batekin egongo da gurasoen bileran.</p> <p>Eskolak eta gurasoak bat egin behar dute ikasleen hobe-beharrez.</p> <p>Aurretik elkarrizketak ondo prestatu.</p> <p>Elkarrizketan adostutako gaiak eta komentatutakoa idatziz jasoko da tutoretza planean dagoen eranskinean.</p> <p>Lehen hezkuntzan ikasleen frogen emaitzak egin ahala agendan idatzita eramango dituzte eta gurasoen sinadura ekarri beharko dute.</p>		

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE ETA GARBITZAILEEN ARTEAN.

GATAZKA ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> - Garbitzaileak gelak batu barik eta oso zikin aurkitzen dituztenean. -Garbitzaileek komunak zikinegi aurkitzen dituztenean. -Irakasleren bat eskolako garbitasun falta aurkitzen duenean. - 	<ul style="list-style-type: none"> -Eskola garbi eta txukun mantentzeko ohiturak landu ikasleekin. -Eskolako ekintzetan aurretik neurriak hartu ahalik eta gutxien zikintzeko. -Arazoa dagoenean zuzenean arduradunari jakinarazi. -Solairu bakoitzean garbi-ikuziko tresnak izan (fregona, erratza, trapuak...) 	<ul style="list-style-type: none"> -Zuzendaritza taldea bitartekaria izango da.

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE ETA GARRAIOKO LANGILEEN ARTEAN

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN DUTEN	NEURRI DIRENAK EDO EZ)	PREBENTIBOAK (EGITEN)	ESKU-HARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> - Garraioko zaintzaileak ikasleak irtetean ez daudenean. -Autobusa berandu edo goizegi datorrenean. -Ikasleren bat eskolan geratzen denean. -Autobus zaintzaileak ikasleen kontrola eramaten ez duenean. -Garraiatutakoa ez den ikasleren batek zerbitzua erabili nahi duenean. 		<ul style="list-style-type: none"> -Kurtso hasieran garraio arduradunari bere funtzioak azaldu. -Garraioko enpresak bere langileei bere funtzioak azalduko dizkie. -Zaintzaileak zerrendak konprobatuko ditu. -Gurasoek autobus zaintzaileari eta tutoreari idatziz jakinaraziko dio ikasleak garraioa erabiliko ez duenean. 		<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleren bat eskolan gelditzen denean talde zuzendaritza egingo da horren kargu. - Argituko du arazoa non egon den eta hurrengo batean berriro ez gertatzeko bideak topatuko dira.

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: GURASO ETA GARRAIOKO LANGILEEN ARTEAN

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN DUTEN	NEURRI DIRENAK EDO EZ)	PREBENTIBOAK (EGITEN	ESKU-HARTZEA
<p>-Autobusa berandu edo goizegi datorrenean.</p> <p>-Ikasleren bat eskolan geratzen denean.</p> <p>-Autobus zaintzaileak ikasleen kontrola eramaten ez duenean.</p> <p>-Gurasoak garaiz paradan ez daudenean.</p>	<p>-Kurtso hasieran garraio arduradunari bere funtzioak azaldu.</p> <p>-Ikasturte hasieran guraso erabiltzaileei araudia pasatu.</p> <p>-Garraioko enpresak bere langileei bere funtzioak azalduko dizkie.</p> <p>-Zaintzaileak zerrendak konprobatuko ditu.</p> <p>-Gurasoek tutoreari eta garraioko arduradunaridatziz jakinaraziko dio ikasleak garraioa erabiliko ez duenean.</p> <p>-Gurasoak markatutako ordutegian autobus geltokian egon behar dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleren bat eskolan gelditzen denean talde zuzendaritza egingo da horren kargu. - Argituko du arazoa non egon den eta hurrengo batean berriro ez gertatzeko bideak topatuko dira. 		

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE EZ DIREN LANGILE ETA GURASOEN ARTEAN.

GATAZKA SORTZEN DUTEN ARRAZOTIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> - Arauak ez errespetatzea gurasoen aldetik edo irakasle ez diren lankideen aldetik. - Errespetu falta , exigentzia eta nagusikeria gurasoen aldetik. 	<ul style="list-style-type: none"> -Kurtso hasierako batzarretan funtzionamendu azalpenak eman (sarrerak eta irteerak, jantokia, autobusa, patioa...). -Sektore bakoitzak bere arauak eta bere erantzukizunak zeintzuk diren jakitea. -Arazoa dagoenean zuzenean talde zuzendaritzari jakinarazi. 	<ul style="list-style-type: none"> -Zuzendaritza taldea bitartekaria izango da eta beharrezkoa ikustekotan elkarbizitza batzordeari esan.

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: : IRAKASLE EZ DIREN LANGILE ETA GARBITZAILEEN ARTEAN.

GATAZKA ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>-Garbitzaileak atezainarengana kexekin doazenean bere ardura ez denean.</p> <p>-Garbitzaileei aurretik bilerak edo ekintzak daudela abisatu ez zaienean.</p>	<p>-Eskolaz kanpoko orduetan okupatuta egongo diren gelak zeintzuk diren denboraz abisatu.</p>	<p>-Zuzendaritza taldea bitartekaria izango da.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE EZ DIREN LANGILE ETA IKASLEEN ARTEAN.

GATAZKA SORTZEN DUTEN ARRAZOTIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>-Ikastetxeko funtzionamendu arauak ez betetzea.</p> <p>-Errespetu faltak izatea.</p>	<p>Guztiontzat:</p> <p>-Kurtso hasierako bileretan azpimarratu umeen aurrean irakasleen eta irakasle ez diren autoritatea ez kentzea eta ikastetxeko erabakiak errespetatzea. Dударik egon ezkeru zuzenean irakaslearekin hitz-egin.</p> <p>-Ikasleekin giro ona mantendu.</p> <p>-Errespetua landu.</p> <p>-Gela eta ikastetxeko arauak egin eta berrikusi.</p>	<p>- Falta larri baten aurrean edo sarritan gertatutako egoera izan ezkeru tutoreari esan. Konpontzen ez bada , protokoloa jarraitu:</p> <p>-Gurasoak, talde zuzendaritza, elkarbizitza batzordea eta eskola kontseilua.</p> <p>-Eraso baten aurrean, lekuko bat eta bitartekari bat bilatu.</p> <p>-Zigorak ipini: jolas-ordurik gabe geratu, txangorik ez... eta hausnarketa.</p> <p>-Ikasleak gertatutakoa idatziko du eta barkamena eskatuko du.</p> <p>-Idatzitakoa etxera bidali eta gurasoek sinatu beharko dute.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IRAKASLE EZ DIREN LANGILE ETA JANTOKIKO ZAINZAILEEN ARTEAN.

GATAZKA ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<p>- Funtzionamendu arauak errespetatzen ez direnean.</p>	<p>-Zaintzaileen betebeharrak zerrendatu: zaintzaileen arduradunak ziurtatuko du betetzen direla.</p> <p>-Ikastetxeko funtzionamendu arauak kurtso hasieran idatziz eman, jantoki orduetan arau berdinak betetzeko.</p> <p>-Arazorik egotekotan ardura duenarengana joan.</p>	<p>-Zuzendaritza taldea bitartekaria izango da.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: GURASOEN ARTEAN

GATAZKA ARRAZOIAK	SORTZEN	DUTEN	NEURRI DIRENAK EDO EZ)	PREBENTIBOAK (EGITEN	ESKU-HARTZEA
<p>-Gurasoen arteko liskarra umeen gauzengatik.</p> <p>-Arrazakeria.</p> <p>-Inbidiak.</p> <p>-Gurasoen arteko harreman txarrak eskolatik kanpoko arazoengatik.</p> <p>-Banandutako gurasoen artean gatazkak bietako batek bakarrik erabaki nahi duenean seme-alaben gauzak.</p>			<p>-Bertsio biak ezagutzea lagundu ahal izateko.</p> <p>-Gurasoen eskola antolatzea.</p> <p>-Guraso elkartearekin harremanak izan.</p> <p>-Gurasoak ikasleen arteko liskarretan ez sartzea.</p> <p>-Banandutako gurasoei informazio alde bietan idatziz helarazi . Alde biak tutorearekin hitz egiteko eskubidea izango dute elkarrekin edo batzar ezberdinetan.</p>		<p>-Elkarbizitza batzordea bitartekaria.</p>

A. GATAZKEN ANALISIA

GATAZKA: IKASTETXEA ETA UDALETXEA

GATAZKA SORTZEN DUTEN ARRAZOIAK	NEURRI PREBENTIBOAK (EGITEN DIRENAK EDO EZ)	ESKU-HARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio eta ulermen falta dagoenean. - Lehentasunetan ados ez daudenean. - Arazo larriak berehala konpontzen ez dituztenean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bitartekari bat izendatu ikastetxe eta udalaren artean. 	<ul style="list-style-type: none"> -Eskola Kontseiluan dagoen ordezkariarengana jo.

B. ESKOLAKO ESPAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK

1 .Sarrerak eta irteerak

- Ikasle eta irakasleen partetik puntualtasuna.
- Lehen hezkuntzakoak mailaka ilaran jarriko dira eta tutorearekin edo tokatzen zaien espezialistarekin igoko dira txandaka.
- Haur Hezkuntzakoak hall-eraino sartuko dira gurasoekin.
- Sarrerak eta irteerak adostutako ateetatik egingo dira.
- Sarrera eta irteeratan garraioko arduraduna egongo da beti.
- Garraioko umeren batek arratsaldean zerbitzua erabiliko ez bada garraioko arduradunari idatziz iragarriko dio.
- Sarrera eta irteeratan gurasoak puntualak izango dira.
- Irakasleren bat berandu helduko bada ikastetxera telefonoz abisatuko du.

2. Jantokia

- Jantokia, adostutako zerbait ez badago, jantoki orduan bakarrik erabiliko da.
- Jantokiko arduradunak antolatuko du zerbitzua.
- Ikasle guztiek jantokiko arauak errespetatu behar dituzte.

3. Gela

- Gela garbi eta txukun mantendu behar da.
- Gelako materiala eta altzariak zaindu behar dira.
- Begirunezko arauak errespetatu. Modu onean hitz egin, gelan adi egon, ahots tonua mantendu, sartzean eta irtetean agurtu, sarreran eta irteeran lasai ibili, puntualak izan, irakasleak eta lagunak errespetatu. Hamaiketakoa patio ordurako utzi.
- Aulkiak eta mahaiak mugitzean altxatu.
- Arriskuak antzeman eta kontuz ibili: leihoak, ertzak, ateak...
- Patio orduan ezin da gelan geratu irakaslearekin ez bada.

4. Pasabideak

- Pasabideetatik astiro joan behar da eta beharrezkoa denean pasatzen utzi.
- Pasabideetan ahots tonua egokia izan.
- Hormak garbi mantendu.
- Landareak eta altxariak errespetatu.

5. Komunak

- 2. eta 3. zikloan patiora irten edo sartzean joango dira.
- Haur Hezkuntza eta Lehen zikloan behar dutenean joango dira, beti baimena eskatuta. Apurka patio sarrera eta irteeretan joatea gomendatuko zaie.
- Komunera joan eta gero eskuak garbitzea gomendatuko zaie.
- Komunak ondo erabili behar dira. Patioko komunak jolastokiko orduan erabiliko dira bahimena eskatuta.

6. Informatika gela

- Atean eskegita dagoen ordutegia errespetatu behar da.
- Ikt-ko irakaslea izango da gela honetako arduraduna.
- Egunero azkeneko saioan egon direnek ordenagailuak amatatuko dituzte.
- Gela txukun mantenduko da: aulkiak, aurikularrak, saguak...

7. Sukalde gela

- Erabiltzeko lehentasuna Heziketa Bereziko ikasleek izango dute. Besteak libre dagoenean erabili izan ahalko dute (PTari esan).
- Erabiltzean gela batu eta garbi utzi. Erabilitako tresnak garbitu.
- Sukaldeko tresnak eta trapuak bakarrik sukaldean erabiliko dira.

8 .Margolaritza

- Erabili baino lehen atean dagoen orrian apuntatu.
- Erabili ondoren gela batu eta garbi utzi. Erabilitako tresnak garbitu.
- Garbitzeko margolaritzarako dauden trapuak erabiliko dira.

9. Laborategia

- Urteko beharizanen arabera erabilpenaren lehentasunak ezarriko dira. Ordutegia atean jarrita egongo da.
- Erabili baino lehen atean dagoen orrian apuntatu.
- Erabili ondoren gela batu eta garbi utzi. Erabilitako tresnak garbitu.

10. Ingelerako gela

- Gela honetako arduraduna Ingelerako irakaslea izango da.
- Gelako arauak bete behar dira. (3.puntuakoak)

11. Musika gela

- Gela honetako arduraduna Musikako irakaslea izango da.
- Gelako arauak bete behar dira. (3.puntuakoak)

12. Liburutegia

Erabilera anitzeko gela da urteko beharizanen arabera.

13. Gimnasioa/ psikomotrizitate gela.

-Gela honetako arduraduna Gorputz Hezkuntzako irakaslea izango da.

-Gela honetan irakaslea egon behar da beti ikasleekin (dutxan eta ariketak egin bitartean).

-Gela txukun mantendu behar da eta materiala gordeta utzi saio bakoitza amaitu ondoren.

-Material gelara ezin da ikaslerik sartu irakaslearen bahimenik gabe.

14. Jolastokia

-Kurtso hasieran irakasleen zaintzak markatuko dira.

-Zaintza tokatzen zaiona patiora jaitsiko da lehen bai lehen.

-Jolastokira ikasleak eramaten dituen irakaslea patioan geratuko da zaintza tokatzen zaiona heldu arte.

-Irakasleek zaintza aktiboa egingo dute, patiotik ibiliko dira eskolako sarrera, irteera eta leku arriskutsuak bereziki zaintzen.

-Ikasleek zaintzen dauden irakasleak errespetatuko dituzte.

-Ikasleek irakasleekin batera patiorako adostutako arauak errespetatuko dituzte.

15 .Garraioa

-Autobuseko zaintzailea eta taxilaria sarrerako ordura arte egongo dira garraioko umeekin.

-Arratsaldean autobuseko arduraduna eta taxilaria umeen zain egongo dira hall-ean.

-Ikasleak gurasoek idatzitako baimenarekin iragarriko dio autobus zaintzaileari eta taxilariari arratsaldean bueltatuko ez bada.

- Ikasleak patiotik joango dira autobusera eta taxira.

-Umeek zaintzaileak, autobus gidaria eta taxilaria errespetatuko dituzte.

-Garraioko zaintzaileek umeak errespetuz tratatuko dituzte.

-Autobuseko arauak Ikastetxeko berdinak dira, bertako arduraduna zaintzailea izango da.

-Gurasoak markatutako ordutegietan egongo dira autobus geltokietan umeekin zain.

C . IKASTETXEKO ARAUAK,ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1.Irakasleak

1.1 Arauak

- Irakaslea gelara garaiz helduko da.
- Gelan giro atsegina sortzen saiatuko da.
- Ikasleak errespetuz tratatuko ditu.
- Gatazketan hiru pausu hauek emango ditu: 1.lasaitu ikasleak 2.hitz egin 3. irtenbideak topatu.
- Gelatik irtetean gela garbi eta txukun dagoen konprobatuko du.
- Materiala eskura eta ondo zainduta izango du.
- Ikasleei aurretik ikasiko dutena azalduko die.
- Tutoreak etxeko lanak asko izan ez daitezen zainduko du.
- Beharrezko ikusten duenean baimena emango dio ikasleari komunera joateko.
- Tutorea beti azkena izango da gelatik irteten.
- Ikasle bat azterketa batera etorri ez denean gaixorik etab. egon delako,aukera emango dio azterketa egiteko.
- Tutoreak, urtean zehar, ikasle bakoitzaren familiarekin bilera bi izango ditu gutxienez.
- Tutoreak kurtso hasieran bilera orokor bat egingo du gurasoekin.
- Ahal den neurrian, irakasleak kideekin elkarlanean arituko da.

1.2 Eskubideak

- Hitzarmenak markatzen dituen eskubideak.
- Ikastetxeko funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea du.
- Ikastetxeari dagozkion gaien edo norberari dagozkion informazioa izateko eskubidea du.
- Ikerkuntza pedagogikoak sortzeko iniziatiba.
- Legeak markatutako eskubide sindikalak izatea.
- Etengabeko prestakuntza izatea, ordutegiak errespetatuz.
- Beharrezkoa ikusten denean gurasoei deitzea.
- Klaustro bilera eskatzeko eskubidea irakasleen herena izanda.

- Ikastetxeko Kontseiluan parte hartzea.
- Kontseiluan iradokizunak, ideiak eta arazoak azaltzeko eskubidea.
- Ikastetxeko espazioak eta materialak erabiltzeko eskubidea, arauak eta ordutegiak errespetatuz.
- Erresponsabilitate zibilaren eskutik babestuak izateko eskubidea.
- Errespetuz tratatuak izateko eskubidea.

1.3 Betebeharrak

- Eskola ordutegiaren barruan garaiz etortzea.
- Gelan, ebaluaziotan, ordezkapenetan, batzarretan, klaustroetan aktiboki parte hartzea.
- Eskolara etorri ezean, idatzizko egiaztagiria zuzendaritzan aurkeztu.
- Eskola ordu barruan ezin da eskolatik atera aurretik abisatu barik.
- Programatu, klaseak prestatu, ziklo eta etapako koordinazioak egin, ikastetxeko arauak jarraituz.
- Ikasleak errespetatu, beraiekin elkarrizketak izan, entzun etab.
- Hasierako batzar orokorra egin gurasoekin eta urtean zehar gutxienez bi bilera egin eta beharrezkoak direnak.
- Tutoretzako ikasleen aktak eta txostenak bete.
- Adostutako irizpideak eta datak errespetatuz ikasleak ebaluatu.
- Klaustroetara, ziko bileretara, etapa bileretara eta batzorde bileretara joan ordutegi barruan.
- Klaustroan eta Kontseiluan hartutako erabakiak errespetatu eta bete.
- Ikasleen adierazpen askatasuna errespetatu , beraien ideiak eta iritziak kontutan hartu.
- Elkarbizitza plana errespetatu eta errespetatu arazi.
- Ikasleak demokratikoki hezi, beraien izateko era kontutan hartuz.
- Eskolatik txango batera ateratzeko beharrezkoa izango da gurasoen idatzizko baimena jasotzea.

1.4 Zaintzak/ordezkapenak

-Kurtso hasieran ikasketa buruak ordezkapenak betetzeko koadro bat egingo du irakasleen saio libreekin.

-Irakasleak ikasketa buruak agindutako ordezkapena bete beharko du.

-Gurasoekin bilera bat adostuta izan arren, lehentasuna ordezkapena izango da, eta gurasoekin beste egun batean adostuko du bilera.

2. Ikasleak

2.1 Eskubideak

1. *Hezkuntza integralerako eskubidea*

Edukiaz gain, gizartean bizitzeko behar diren gaitasunak landu behar ditugu.

Afektibitatea, elkarlana, autonomia...

Gure konpromisoak:

- Hurbiltasuna lantzea (afektibitatea lortzeko: agurrak eman, umeei entzun moztu barik...)
- Taldeko lana indartzea. Gelako giro ona sortzea
- Autonomia indartzea.

2. *Berehalako arretarako eskubidea*

Berehalako arreta eman zerbait ikusten edo sumatzen dugunean

Gure konpromisoak:

- Adi egotea lehenengo susmoak edo sintomak daudenetik.
- Koordinazio lana indartzea: arazoak irakasle guztien artean komentatu behar ditugu.
- Protokoloa ezagutzea eta jarraitzea.

3. *Babeserako eskubidea*

Ikasleen eta familien datuak gorde eta babestu behar ditugu.

Gure konpromisoak:

- Umeen datuak babestu eta gorde behar ditugu pribatuak baitira.
- Umeen datuak behar diren tokietan, soilik, komentatuko ditugu.
- Medikuei eta irakasleen arteko hutsuneak konpontzen saiatuko gara.
-

4. Bidezko ebaluaziorako eskubidea

Errendimenduaz gain, umeen dedikazioa eta ahaleginak ere baloratu behar dira.

Gure konpromisoak:

- Bai eskolako lana baita etxekoa ere kontrolatuko eta baloratuko ditugu.
- Gela barruko jarduerak baloratuko ditugu.
- Azterketako irizpideak aztertuko ditugu ondo.
- Kontrolak egin eta gero zuzendutakoa ikasleekin ikusiko dugu.
- Ebaluazio saioetan irakasle guztiak egongo gara.
- Informazioa familiei bananduko diegu.

5. Errespeturako eskubidea

Ikasleen osotasuna, moral eta fisikoa, errespetatu eta babestu behar dugu.

Gure konpromisoak:

- Edozein arazo gertatu bezain pronto konpontzen saiatuko gara.
- Neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko kontuan hartuko ditugu arazo mota, adina...
- Umearen ongizate lortzeko kontuan izango dugu bere egoera orokorra (higienikoa, akademikoa, segurtasuna...)
- Familiarekin edo dagokion estamentuarekin kontaktuan jarriko gara.
- Irakasle, zuzendaritza eta langile guztien arteko koordinazioa bultzatuko dugu. Protokoloa ezagutu eta errespetatuko dugu.
- Ikasleei jakin araziko diegu norengana jo behar duten arazoak dauzkatenean.

6. Kontzientzi askatasunerako eskubidea

Familia bakoitzak aukeratu ahal izan behar du erlijioa nahi duten ala ez, eta zein motatakoa.

Gure konpromisoak:

- Matrikula egiterakoan galdetuko diegu zein erlijio mota nahi duten.
- Jasotako datuak Hezkuntza Ordezkaritzara bidaliko ditugu.

7. Biltzeko eskubidea

Gelako arauak komunean jarriko dira.

Gure konpromisoa:

- Tutoretza lana bultzatuko dugu, ikasleei hitz egiteko aukera emanez.

8. Adierazpen askatasunerako eskubidea

Ikasleen iritziak entzun eta kontuan hartu behar dira

Gure konpromisoa:

- a. Tutoretzaren bidez ikasleek nahi dutena adierazteko aukera emango diegu
- b. Haien eskubideak eta betebeharrak landuko ditugu

9. Parte hartzeko eskubidea

Umeek ahalik eta ekintza gehienetan parte hartuko dute

Gure konpromisoak:

- c. Tutoretzaren bidez informazioa jaso eta bideratuko dugu.
- d. Denen arteko komunikazioa bultzatuko dugu.

10. Informaziorako eskubidea

Haien eskubide eta betebeharrak jakin arazi.

Beraiek erabiltzeko dauden errekurtsoen informazioa zabaldu

Gure konpromisoak:

- e. Tutoretzan ondorengo aspektuak landuko ditugu:
 - Eskubideak zabalduko ditugu
 - Horiei buruz hitz egingo dugu eta ondorioak aterako ditugu
 - Akordioak hartu eta idatziko ditugu
- f. Eskolako informazioa eta funtzionamendua zabalduko ditugu: liburutegia, eskolaz kanpoko ekintzak...

11. Aukera berdintasunerako eskubidea

Ezberdintasunak kontuan hartu

Desabantailak, gabeziak konpentsatu

Gure konpromisoak:

- Arlo akademikoan ikastetxeko errekursoak (giza eta materialak) erabiliko ditugu laguntza eta integrazio neurriak jartzeko.
- Arlo ekonomiko edota soziokulturalean eskolak tramiteak bideratuko ditu (bekak, eskaerak, udaletxeko laguntzak, zerbitzuak...)

2.2 Betebeharrak

1. Ikastea ikasleen oinarrizko betebeharra izango da:

-Ikasgai guztietan egon behar dira eta parte hartze aktiboa izango dute.

-Ikastetxeko jarduera guztietan puntualtasuna izan behar dute eta ordutegiari errespetua izango diote.

-Gaitasunetan ahalik eta garapen handiena izateko ikasi eta ahaleginak egin.

-Deskantsurako, elikatzeko eta ekintza osasungarriak izateko ohiturak hartu.

2. Irakasleen esanak bete:

-Irakasleak agindutako lanak edo eginkizunak egin.

-Irakasleen aginduak bete eta errespetatu, beraien autoritatea onartuko dute, bai ikasteko gauzetan, elkarbizitza arauetan zein ikastetxeko antolaketako arauetan.

-Arauk betetzen elkarlanean aritu, eta berdintasunaren aldeko jokabideak ikasi eta jarrera sexistak zuzendu.

3. Arauen errespetua:

-Bestekin duten errespetuzko tratu adeitsua elkarbizitzako oinarrizko araua bihurtu.

-Eskolako kide guztiak elkarbizitza plan honetan idatzita dauden eskubide eta betebeharrak bete dezaten utzi eta erraztu.

-Besteen kontzientzia askatasuna errespetatu, eta arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein arrazoirengatik diskriminazioa eragotzi.

4. Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta ikasteko giro egoki bat sortzen parte hartu eta modu positiboan elkarlanean aritu:

-Ikastetxeko antolakuntza, funtzionamendu, elkarbizitza eta diziplina arauak errespetatu.

-Ikas komunitate osoarekin aktiboki eta modu onean parte hartu eskolan egiten diren jardueren garapena errazteko.

-Sortu daitezkeen gatazkak konpontzeko, ahal duten neurrian, ahalik eta modu baketsuenean eta bidezkoenean parte hartu.

-Behar duten eskola kideei laguntza eman.

-Eskola-jazarpena pairatu dezaketen eskola kideei lagundu eta beraien alde aktiboki parte hartu eta ikastetxeak gai honekin ezartzen dituen neurriak (elkarbizitza planean dagoen "bullyng protokoloa") betetzen lagundu.

-Ikastetxeko eta gelako funtzionamendu arauak egiten aktiboki parte hartu.

5. Eskolara garbi etorri.

-Garbitasun ohitura onak mantendu osasuntsu mantentzeko.

6. Ikastetxeko altzariak, materialak, instalazioetan erabilpen egokia:

-Ikastetxeko altzariak, materialak eta instalazioak errespetatu.

-Ikastetxeko ingurugiroa errespetatu, bereziki garbitasunean, hondakinen bereizketan...

-Ikastetxeko inguruak garbi eta txukun mantendu.

3. Irakasle ez diren langileak

3.1. Hezitzaileak

3.1.1 Eskubideak

-Konbenioak markatzen dituen eskubideak.

-Ikastetxeko funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea du.

-Ikastetxeari dagozkion gaien edo norberari dagozkion informazioa izateko eskubidea du.

-Bere beharrizanak, interesak eta arazoak kontutan hartzea organo egokiaren barruan.

-Ikerkuntza pedagogikoak sortzeko inizatiba.

-Legeak markatutako eskubide sindikalak izatea.

-Etengabeko prestakuntza izatea, ordutegiak errespetatuz.

-Ikastetxeko espazioak eta materialak erabiltzeko eskubidea, arauak eta ordutegiak errespetatuz.

-Erresponzabilitate zibilaren eskutik babestuak izateko eskubidea.

-Errespetuz tratatuak izateko eskubidea.

-Bere lanerako beharrezkoa denean ikastetxeko eraikina, materialak eta instalazioak erabiltzea.

-Bere lan ordutegia errespetatu.

3.1.2 Betebeharrak

-Eskola ordutegiaren barruan goiz etortzea.

-Ikaslearekin aktiboki parte hartzea.

-Eskolara etorri ezean idatzizko egiaztagiria zuzendaritzan aurkeztu.

-Eskola ordu barruan ezin da eskolatik atera aurretik abisatu barik.

-Beharrizanak dituen ikasleen materiala sortzen laguntzea.

-Ikasleak eta irakasleak errespetatu, beraiekin elkarrizketak izan, entzun etab.

-Ikasleen adierazpen askatasuna errespetatu, beraien ideiak eta iritziak kontutan hartu.

-Elkarbizitza plana errespetatu eta errespetatu arazi.

-Ikasleak demokratikoki hezi, beraien izateko era kontutan hartuz.

3.2. Atezaina

3.2.1 Eskubideak

-Ikastetxeko beste pertsonengandik errespetatua izatea.

-Ikastetxean estruktura profesional, tekniko eta demokratiko baten barruan parte hartzeko eskubidea.

-Bere beharrizanak, interesak eta arazoak kontutan hartzea organo egokiaren barruan.

- Ikastetxean berari eragiten dioten aldaketen berri izatea.
- Bere ordezkariaren bidez Kontseiluan parte hartzea.
- Bere lanerako beharrezkoa denean Ikastetxeko eraikina, materialak eta instalazioak erabiltzea.
- Bere lan ordutegia errespetatu.
- Legeak markatutako eskubide sindikalak izatea.
- Erresponsabilitate zibilaren eskutik babestua izateko eskubidea.

3.2.2 Betebeharrak

- Ikastetxeko segurtasunaren eta zaintzaren arduraduna izatea.
- Ikastetxea markatutako ordutegian zabaldu eta ixtearen arduradun.
- Ikastetxea ondo mantentzen lagundu.
- Bere ordutegi barruan erabiltzaileak arretaz hartu.
- Lanetik huts egin behar duenean dagokionari abisatu.
- Ikastetxean ikusten dituen akats edo irregulartasunak talde zuzendaritzari informatu.

3.3. Jantokiko langileak

3.3.1 Eskubideak

- Ikastetxeko beste pertsonengandik errespetatua izatea.
- Ikastetxean estruktura profesional, tekniko eta demokratiko baten barruan parte hartzeko eskubidea.
- Bere beharrianak, interesak eta arazoak kontutan hartzea organo egokiaren barruan.
- Ikastetxean beraiei eragiten dioten aldaketen berri izatea.
- Bere ordezkariaren bidez Kontseiluan parte hartzea.
- Bere lanerako beharrezkoa denean Ikastetxeko eraikina, materialak eta instalazioak erabiltzea.
- Bere lan ordutegia errespetatu.
- Legeak markatutako eskubide sindikalak izatea.
- Erresponsabilitate zibilaren eskutik babestua izateko eskubidea

3.3.2 Betebeharrak

- Ikastetxeko segurtasunaren eta zaintzaren arduraduna izatea.
- Ikastetxera puntualtasunez etorri.
- Ikasleak eta irakasleak errespetatu, beraiekin elkarrizketak izan, entzun etab.
- Ikasleak demokratikoki hezi, beraien izateko era kontutan hartuz.
- Erabiltzen dituzten instalazioen arduraduna izan.
- Beraien lan orduaren barruan ikasleak atenditu.
- Lanetik huts egin behar duenean dagokionari abisatu.
- Ikastetxean gertatu daitekeen irregulartasuna jantokiko arduradunari informatu.
- Ondo jaten erakutsi (janaria, tresnak...)
- Jateko ohitura onak irakatsi.

4 Gurasoak

4.1 Eskubideak

- Tutorea edo beste irakasle baten aldetik informatuak izatea, bere seme/alabaren errendimendu, ikaste prozesu eta besteekiko elkarbizitzari buruz.
- Ikastetxean parte hartzea Kontseiluan duten ordezkarien bidez.
- Ikastetxeko instalazioak eskolaz kanpoko ekintzetarako erabiltzea aurretik zuzendaritzari eta/edo udaletxeari eskatuta.
- Ikastetxearen martxari buruzko iradokizunak entzunak izatea.
- Kontseiluko hautesleak eta hautatuak izateko eskubidea.

4.2 Betebeharrak

- Beraien seme/alabek ikastetxearekiko, irakasleekiko, ikasleekiko eta irakasle ez diren langileekiko jarrera egokia izatea ahalegindu.
- Beraien seme/alabak ikastetxera puntualtasunez, garbi eta beharrezko deskantsuarekin ekarri.
- Ikastetxean erabiltzeko beharrezko materiala erraztu.
- Beraien seme/alaben portaera eta errendimenduaz arduratu.
- Irakasleekin kontaktua izan eta deitutako hitzorduetara joan.
- Bisita orduak errespetatu, ez moztu irakasleen klaseak.

6. BIBLIOGRAFIA

- EUSKO JAURLARITZA-Hezkuntza Saila- Ikastetxeen Zuzendaritza .
Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua aplikatzeko gida.
Vitoria- Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2009.

- EUSKO JAURLARITZA-Hezkuntza Saila
Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko gida- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren 2008ko Urteko Elkarbizitza Plana (UEP)

[www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/.../plan.../urteko elkarbizitza plana](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/.../plan.../urteko_elkarbizitza_plana).

- IBARROLA, Begoña. “ *Cuentos para sentir* ” S.M, 2003
IRALEKO R-300 ikastarotan itzulita “ *Sentiarazteko ipuinak* ”
<http://b08normalkuntza.wikispaces.com/file/view/SENTIARAZTEKO+IPUINAK-+BILDUMA+OSOA.pdf>

7. Eranskinak

ZAINZAK H.H an

Honela antolatuko dira sarrerak, irteerak eta zaintzak.

- 9:30etan Haur Hezkuntzako ikasleak atzeko atetik sartuko dira.
- Haur Hezkuntzako irakasleak hallean egongo dira umeen zain eta HH3, HH4 eta HH5 urteko umeak tutorearekin gelara sartuko dira.
- HH2 urteko umeak gurasoen laguntza izango dute gelaraino eta malgutasuna sarreran 9:30etatik-10:00tara.
- 11:15etan irakasle bakoitzak dituen umeak jolastokira lagunduko ditu eta bertan, zaintza aktiboa egingo du. Honez gain, kanpoko atek itxita, eta komunekoa zabalik daudela ziurtatuko du.
- EURIA DENEAN hallean geratzen dira.
- 12:00etan lerroetan jarrita eta dagokien irakasleekin lagunduta sartuko dira.
- 12:00etan HH2 urteko umeak tutoreekin lagunduta jantokira joango dira.
- 13:00etan HH3, HH4 eta HH5 urtekoak jantokira lagunduko ditugu.
- 14:30etan lerroetan jarrita jantokiko zaintzaileekin sartuko dira.
- 16:30etan irakaslearekin irtengo dira atzeko atetik. Tutoreak umeak zainduko ditu gurasoak etorri arte.

ZAINZAK L.Han

✓✓ Honela antolatuko dira sarrerak, irteerak eta zaintzak

● 9:30etan aterpean lerroetan jarriko dira eta momentu horretan dagokien irakaslearekin gelara igoko dira.

● 11:30etan irakasle bakoitzak dituen umeak jolastokira lagunduko ditu. Zaintzakoak heltzerakoan joango da. Zaintzako irakaslea ordurako egon behar da jolastokian.

● 12:00etan lerroetan jarrita eta dagokien irakasleekin lagunduta igoko dira.

● 13:00etan jantokira lagunduko ditugu.

● 14:30etan lerroetan jarrita, dagokien jantokiko zaintzailearekin igoko dira. Irakasleak zain egongo dira geletan.

● 16:00etan irakaslearekin irtengo dira.

EURIA DENEAN, aterpean geldituko dira.

ATSEDENALDIETAN KONTUAN HARTZEKOAK:

Gure **puntueltasuna** oso garrantzitsua da.

Umeak irakaslearekin jaitsiko dira eta zaintzaileak heldu arte ez dira joango.

Kanpoko atea itxita, eta komunakoa zabalik daudela ziurtatuko dugu.

Atsedenaldirako irteera eta sarreretan komunatik pasatzea aholkatuko diegu umeei.

Frontoia: goizeko atsedenaldiran ez dugu erabiliko.

Patioa:

- Belartzan eguraldiaren arabera jolas dezakete; basea (lokatza) badago, ez.

- Futbol zelaiaren horma eta eskaileretatik ez dira ibili behar arriskutsua delako.

- Futbola futbito zelaietan egingo da.

- Futbito zelaietako txandek goizez eta bazkal osteko atsedenaldirarako ere balio izango dute.

- Talde bakoitza bere txanda denean ibiliko da.

Aterpea:

- Euria denean aterpean ez dugu baloirik erabiliko.

- Halleko aterpean (ludotekako lekuan) ezin da baloirik erabili.

Sarrera ordenatua egiteko, txirrina jotzen duenean ilarak egingo dira eta dagokion irakaslea bere taldearekin igoko da. (6. mailatik hasita 1go mailara).

Baloiak:

- Ez dira geletara igoko. Beheko kutxetan utziko ditugu.

IKASLEEKIN ADOSTUTAKO ARAUAK:

Ikasturtero berrikusten ditugu. Hona hemen adibide batzuk

ERREZPETOZKO JARRERAK GELAN

JARRERAK	
Norberarekiko	<ul style="list-style-type: none">- Ondo jesarrita egotea.- Nire buruarekin pozik egotea- Irakaslearen azalpenak arretaz entzutea.
Lagunekiko	<ul style="list-style-type: none">- Lana bukatzen dudanean, isilik egotea besteek amaitu arte.- Materiala elkar artean trukitzea.- Berba egiteko txanda errespetatzea.- Lagunei laguntza eskaintzea
Irakasleekiko	<ul style="list-style-type: none">- Irakasleari kasu egitea.- Irakasleak hitz egiten duenean, isilik egotea.- Irakasleekiko harreman onak izatea.
Garbitzaileekiko	<ul style="list-style-type: none">- Aulkiak igotzea.- Mahiak garbi edukitzea.- Botata dauden paperak batzea.
Materialarekiko	<ul style="list-style-type: none">- Material ordenatzea.- Materiala zaintzea eta ondo aprobetxatzea.
Inguruarekiko	<ul style="list-style-type: none">- Papera ondo aprobetxatzea eta birziklatzea.

JOLASTOKIKO ARAUAK

- * Eskaileretatik eta pasabideetatik lasai ibiltzen naiz eta besteen erritmoa errespetatzen dut.
- * Pozik eta lasai jolasten naiz.
- * Jolasetan ume guztiak onartzen ditut.
- * Gazteagoak direnekin ere ondo portatzen naiz.
- * Gure arteko jolasetan arauak errespetatzen ditut.
- * Arazoak sortzen direnean, berba egin, entzun eta akordio batera heltzen gara.
- * Arriskutsuak diren gauzekin kontuz ibiltzen naiz. (harriak, makilatxoak, langak...)
- * Jolastokiko gauzak ondo zaintzen ditut(ateak, txinboak,...)
- * Patioa garbi mantentzen dut.
- * Zaintzailei kasu egiten diet.
- * Zaintzen duenari baimena eskatzen diot baloien bila joateko, gelara edo etxera joateko,...
- * Zelai txandak errespetatzen ditut.

JANTOKIKO ARAUAK

JATORDU ETA ONDOKO ATSEDENALDIETAN ZAINDARIEK AGINTZEN DUTE

- Kasu egingo diet.
- Zerbait eskatzeko eskua altxatuko dut.
- Modu egokian hitz egingo diet.
- Eskatzerakoan, " mesedez " esango diet.

GIRO ATSEGINA ETA LASAIA BEHAR DUGU JATEKO

- Jantokian formal eta trankil egongo naiz.
- Baxuz hitz egingo dut ondoko mahaikideekin.
- Amaitu arte jesarrita egongo naiz.

MODU EGOKIAN BAZKALDUDUKO DUGU

- Edateko ura garbi mantenduko dut.
- Janaria, behar den moduan, mahai gainean edukiko dut.
- Jateko tresnak ondo erabiliko ditugu.

OSASUNTSU ETA INDARTSU EGOTEKO

- Bazkaldu aurretik eskuak garbituko ditut.
- Denetik jango dut.
- Nire gustukoa ez dena jaten ere ikasiko dut.
- Platerean dagoen janaria jango dut.

JANTOKIKO ARAUAK

Norberaren ebaluazioa

JATORDU ETA ONDOKO ATSEDENALDIETAN ZAINDARIEK AGINTZEN DUTE	Kasu egingo diet.			
	Zerbait eskatzeko eskua altxatuko dut.			
	Modu egokian hitz egingo diet.			
	Eskatzerakoan, " mesedez " esango diet.			
GIRO ATSEGINA ETA LASAIA BEHAR DUGU JATEKO	Jantokian formal eta trankil egongo naiz.			
	Baxuz hitz egingo dut ondoko mahaikideekin.			
	Amaitu arte jesarrita egongo naiz.			
MODU EGOKIAN BAZKALDUDUKO DUGU	Edateko ura garbi mantenduko dut.			
	Janaria, behar den moduan, mahai gainean edukiko dut.			
	Jateko tresnak ondo erabiliko ditut.			
OSASUNTSU ETA INDARTSU EGOTEKO	Bazkaldu aurretik eskuak garbituko ditut..			
	Denetik jango dut.			
	Nire gustukoa ez dena jaten ere ikasiko dut.			
	Platerean dagoen janaria jango dut.			

MARGOTU*Oso ondo: berdez *Kostatzen zait: laranja *Hobetu behar dut: gorriz

Autobuseko arauak.

- Autobuseko jesarlekuak zaintzaileak edo irakasleak finkatuko ditu.
- Nor bere jesarlekuan jesarriko da, ondo lotuta eta behar den moduan eserita.
- Ondokoarekin hitz egin daiteke giro lasaia mantenduz.
- Autobusera sarrerak eta irteerak kontuz, astiro eta ordenan egingo ditugu.
- Arratsaldeko 16etan autobuseko zaintzailea eta taxilaria hallean egongo dira. Beraiengana hurbilduko gara ikasle guztiak agertu arte.
- Arratsaldean autobusez edo taxiz ez bagoaz, arduradunari gurasoek idatzitako baimena erakutsiko diogu
- Patiotik joango gara autobusera eta taxira.
- Zaintzaileak eta gidariak errespetuz tratatuko ditugu.
- Autobuseko arauak Ikastetxeko berdinak dira, bertako arduraduna zaintzailea izango da.

MARGOLARITZAKO TXOKOA ERABILTZEKO ARAUTEGIA

- MARGOEN POTEAK MARGOEN MAHAIAN EGONGO DIRA ETA EZ DITUGU BERTATIK ATERAKO.
- KOLORE BAKOITZAK BERE PINTZELAK DITU, EZ DITUGU NAHASTUKO.
- PINTZELA PIXKA BATEN URETAN SARTU ETA GERO KOLOREAN SARTUKO DUGU...KONTUZ! PINTZELAREN ILEAK BUZTIKO DITUGU, INOLAZ ERE BURDINA DUEN ZATIA.
- MARGOA HARTZEKO AUKERATUTAKO KOLOREAREN AURREZ AURRE JARRIKO GARA.
- NIK NAHI DUDAN KOLOREA BESTE PERTSONA BAT ERABILTZEN ARI BADA, ITXARON EGINGO DUT.
- NOR BERE PAPEREAN ARITUKO DA.
- MARGOLARITZARAKO DAUDEN TRAPUAK ERABILIKO DIRA, INOLAZ ERE SUKALDARITZAKOAK.